

ANTONIO CASADO DA ROCHA

JAP (JARDUN AKADEMIKOAREN POEMAK)

ASCII 47

Marka adierazteko
gidaren arabera
UPV/EHU
horrela idatzi behar da:
marra etzana jarritz,

/

universidadetik
unibertsitatera
garamatzen bidea
maldan gora doala
ez dezagun ahantzi.

CURRICULUM¹

zientzia, literatura,
intelektualki promiskuo naizela
aitortzen dut. Maite ditut artea,
museoak eta arkitektura,

asmatu dugun hainbeste kultura
anitzak dira baina bat direla
sinesten dut. Idazteko tartea
ez da pentsamenduaren malura;

soneto hau kubikatzeko astia
ez diot filosofiari kendu,
poesiak badu bere egia.

Bizitza da bizi dugun guztia
eta elkarren osagarri ditugu
Nabokov eta entomologia.

1 Aurretik argitaratua *Letraz letra* bilduman (Booktegi, 2017).

UBI SUNT²

Flysch bat bezala,
ikasturte bakoitzak
bere arrastoa:

ubi sunt qui ante nos,
non daude ikasle horiek?

Unibertsitatetik
urrun hil zen I.,
Mexiko aldera.

Mexikora joan zen M.
eta bertan ezkondu.

Deprimitu zen A.
Tolstoi irakurtzean:
masterra utzi zuen.

Preso ohia, alderrai,
oraindik ez da amaitu.

Belaun ederrak
zituen E.k, ideiak
bezain, kultura

enpresa sortu eta
zinegintzan dihardu.

L. etorri zen
Afrikatik baina ezin
hemen gelditu.

Irakaslearen oharrak
sinatu zituen C.k.

Beste E.k, *gaming*
the system, ikasi du
argitaratzen.

O. oposaketalari
gurasoekin bizi da.

Beste A., ordezka-
penak ordezkapen,
euskara ikasi

eta doktoregoan
sartuko den heroia.

2 Rikardo Arregi-ren *Bitan esan beharra* (Alberdania, 2012) liburuko poema batean oinarrituta.

IKASKETAK

emandako nirvana:
zure gradu amaierako lana
klasikoaren eta barrokoaren
arteko borrokaz (cello bat paren-

tesien artean), master tesia
eta doktoregoaren hesia...
tribu akademikoaren distira
besterik al da? Bai, bada, badira

bizitza ulertzeko hainbat aukera,
eraikitzea silabaz silaba
munduan egoteko gure era,

Donostiako Tabakaleran Tabakaleran
izena duen gunearen antzera
izatea ate bateko aldaba.